



BERGARAKO UDALERRIAN ASKAGAIN EDO ITURRIBERRI PARKEKO KANTINA EDO ZERBITZUEN ERAIKINA USTIATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

I. LEHIAKETAREN XEDEA

1. ARTIKULUA

Begarako Udalak lehiaketa baterako deia egin du ASKAGAIN edo ITURRIBERRI inguruko Parkean edo Atsedean Eremuan dagoen ZERBITZUEN ERAIKINAREN ustiaketa kontzesio administratiboaren bidez adjudikatzeko. Eremu hori Begarako udalerriko lursailetan kokatzen da.

Eraikin horren ustiaketak, taberna eta komunei dagokienean eta unean-unean eremuak duen erabileraren arabera, kantinaren edo Atsedean Eremuaren erabiltzaileek eskatzen duten beharrak asetzea du xedetzat.

II. ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

2. ARTIKULUA

Eraikina angeluzuzena da eta dagokion arkupea du, guztira 62,91 m²-ko estalpearekin.

Eraikinaren bolumenari dagokionez, 2 isurialdeko teilatua du eta radiata pinu-egur trinkoarekin dago eraikita. Egurrak 70 cm-ko lodiera du eta intsektu eta onddo xilofagoen aurkako tratamendua du emanda, huts bikoitzaren metodoaren bidez.

Eraikinaren barruan taberna, biltegiak eta komunak daude; taberna angeluzuzena da eta eraikinaren erdigunea betetzen du. Zoruan zeramikazko zoladura dago jarrita eta alboko bi biltegi txiki ditu, hain zuzen, barraren aldamenean.

Halaber, eraikinak bi komun-eremu ditu eraikinaren albo batean eta horietara barrutik eta kanpotik sar daiteke.

Kanpoan, teilatupeko espazioak edo arkupeak 14,2 m²-ko azalera du eta instalazio guztiak bezala, azaleko tratamendu zeramikoa du.

Estalkiak, %30 maldarekin, bi isurialde ditu, eta zur ijeztu kolatuzko karga-habeekin eta horien muturrari binaka heldutako habexkekin eraiki da. Goiko aldeko tronadurak radiata pinuzko eta 22mm-ko lodierako oholak ditu.



Tabernak neurri hauetako mostradore bat du: 4,03 m luze x 0,50 m zabal eta 1,15 m garai. Pinuzko estalki trinkoa du eta atzeko aldeak, bernizatutako izeizko egurrez egindako frisoa duela, kanpora ematen du.

Eraikinak hauek ditu: ur hotz eta beroaren sarea, ur zikinen hustubide-sarea sukaldetik eta komunetatik irteera-lotuneraino. Argindar-sistemari dagokionez, pieza bakoitzean argi-puntu bat jarri da eta tabernan, berriz, lau argi-puntu; halaber, tabernaren eremuan hiru entxufe daude.

III. BALDINTZA OROKORRAK

3. ARTIKULUA

Bergarako Udalak aipatutako eraikina okupatzeko eta publikora irekitzeko baimena emango dio kontzesio-hartzaileari HAMABOST (15) eguneko epean, harrera eta instalazioen funtzionamenduko akta izenpetzen den egunetik zenbatzen hasita.

4. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak 1. artikuluan zehaztutako helburutarako bakarrik erabiliko du utziko zaion eraikina, eta 2. artikuluan deskribatutako higiezinaren ezaugarriak hartuko ditu kontuan.

5. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak interesa balu 2. artikuluan zehaztutako azalerez gain, mahai eta aulkiak jartzeko helburuarekin eraikinaren mugakide diren espazio libreak okupatzeko, Bergarako Udalari egin beharko dio eskaera okupatu nahi duen azalera eta okupazioaren epea zehaztuta. Bergarako Udalak eskaera honen inguruan erabakiko du eta, onartuz gero, baimen honen baldintzak adieraziko ditu.

6. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzailearen kontura izango dira energia elektrikoaren kontsumoari dagozkion gastu guztiak, bai eta eraikina eta instalazio guztiak kontserbatzeko gastuak ere.

Egoera onean dagoen eraikinaren mantentze-lan orokorretatik salbuesten dira eraikuntza-akatsai edo lur-mugimendu naturalei, asentamenduei eta abarrei egotzitako egitura-kalteak.

Bestetik, Bergarako Udalak bere gain hartuko ditu ur-kontsumoen gastuak eta ur- eta saneamendu-instalazioen mantentze-gastuak.



7. ARTIKULUA

Begarako Udala izango da tabernaren instalazio guztiak egiteko eta finantzatzeko arduradun bakarra. Instalazioek ustiapen mota hauei dagozkien baliabide zehatz guztiak izango dituzte, altzari egokiak barne.

Eraikinaren barruan edo kanpoan eta eraikinaren edozein instalaziotan suertatzen diren beste gastu guztiak kontzesio-hartzailearen edo honen aurrean beste arduradun direnen kontura izango dira; Begarako Udalak ez ditu, inolaz ere, gastu horiek bere gain hartuko.

IV. KONTZESIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

8. ARTIKULUA.

Kontzesio-hartzailearen betebeharrak hauek izango dira:

Eraikinari dagokionez, edateko uren araztegia egoera egokian mantentzea, instalazioak konpontzea eta higiene-elementuak ordezkatzeta.

Ustiaketaren adjudikazio-hartzailea kantinaren inguruko gune berdea egoera onean mantentzeaz arduratuko da, erantsitako plano grafiatuarekin bat etorritik. Eremuaren garbiketa osoa egingo da, honako hauek barne hartuta: belarra moztea, hiri-altzarien eta haur jolasen eremuaren mantentzea, landaketak, zaborrak..., bai eta udal zerbitzu teknikoek zehaztutako beste lan txiki batzuk ere.

Halaber, Gizarte Aseguruak eta lan istripuen ordainketak egin beharko ditu, bai eta kontzesioa indarrean dagoen bitartean lan-, gizarte- eta zerga-arlotik eratorritako gainontzeko ordainketak ere.

Kontzesioaren adjudikazio-hartzaileak bere gain hartuko ditu arduradunek edo mendekoek lana aurrera eramaterakoan egin ditzaketen akatsen erantzukizuna, eta lehiaketa honetako xede diren lanen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteengatik sortutako gastuak, pentsioak edo kalte-ordainak ordainduko dituela hitzartzen du.

Kontzesio-hartzaileak 150.000 euroko erantzukizun zibileko poliza kontratatuko du Aseguru Etxeren batekin, eraikin osoaren eta instalazioen balioa zein kontzesio-hartzailearen jarduera estaltzeko. Polizak eta kontzesioaren ustiapenak hasiera-data bera izan beharko dute.

Instalazioen hondamena, galera edo haustura gertatuz gero, berriak jarri beharko ditu kontzesio-hartzaileak.

Kontzesio-hartzaileak kantina edo zerbitzuen eraikina zabaldu beharko du jendearentzat urteko igande eta jaiegun guztietan. Halaber, maiatzetik irailera bitartean (biak barne) larunbatetan ere zabaldu beharko du. Bakar-bakarrik behar den bezala justifikatutako arrazoiak ematen direnean salbuetsiko da betebehar honetatik.



Kontzesio-hartzaileak 4 orduz izan beharko du zabalik establezimendua jendearentzat, 10:00-19:00 bitartean.

Edonola ere, kontzesio-hartzaileak udako eta neguko ordutegia Bergarako Udalari jakinaraziko dio eta udalaren oniritzia izan beharko du. Ordutegia kantinan kanpoaldetik jarriko da denon jakinerako.

V. BERGARAKO UDALAREN BETEBEHARRAK

9. ARTIKULUA

Bergarako Udalak aginduko dio dagokion erakundeari zaborra jaso dezala Atsedeen Eremuaren funtzionamenduarekin bateragarria den ordutegiaren barnean.

Edonola ere, kontzesio-hartzaileak zaborra behar bezala banatuta utzi beharko du, betiere Bergarako Udalak zaborra jasotzeko ezarritako sistemaren arabera.

10. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileari dagokio kontzesio-xede den eraikinean garatuko den jarduera martxan jartzeko beharrezkoak diren lizentziak eskuratzea. Halaber, aipatutako lizentziei dagozkien gastuak ordainduko ditu.

11. ARTIKULUA

Eraikina ez balitz zabalduko 10. artikuluan aipatutako epean, kontzesio-hartzaileak 50 euroko isuna ordainduko luke eguneko, 1.000 eurora iritsi arte. Kopuru horretara iritsitakoan Bergarako Udalak kontzesioa iraungi dela adierazi ahal izango du.

Aipatutako zigorrak ez dira aplikatuko, kontzesio-hartzaileari lepora ez dakizkioken arrazoiengatik ematen bada atzerapena.

12. ARTIKULUA

Kontzesioa formalizatzen den egunetik kontaktzen hasita 8 eguneko epean, kontzesio-hartzaileak eta Bergarako Udalak dagokion akta sinatuko dute, harrera eta instalazioen funtzionamendua jasoko dituen.



VII. KONTSERBAZIOA ETA USTIAPENA

13. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak kontserbazio-egoera onean mantendu beharko ditu Zerbitzuen Eraikin osoa eta eraikin barruko instalazioak.

6. artikulua araber, Bergarako Udala ur- eta saneamendu-instalazioak eta putzu septikoa mantentzeaz arduratuko da.

14. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak Zerbitzuen Eraikineko instalazio guztien funtzionamendua zehaztasunez zainduko du eta horien mekanismoak berrikusiko ditu erabiltzaileei zerbitzu ona eskaintzeko. Bergarako Udaleko teknikoei horri buruz egiten dizkieten iradokizunak bete beharko ditu. Halaber, kontzesio-hartzaileak instalazioetan izandako edozein akats edo kalte konpontzeaz gain, sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.

Ustiapenetan beharrezkoak diren berritze-lanak eta hobekuntzak ere egin beharko ditu, Zerbitzuen Eraikinak ustiatzeko baldintza egokiak izan ditzan.

Kontzesio-hartzaileak Zerbitzuen Eraikinean egin nahi duen aldaketa edo hobekuntza oro Bergarako Udalari jakinarazi beharko dio, eta ezin izango ditu egin beharrezko baimena izan arte.

15. ARTIKULUA

Debekatuta dago Zerbitzuen Eraikina lagatzea, eskualdatzea eta alokatzea, kontzesio-hartzailea bera baita hori ustiatzeko arduradun zuzena.

16. ARTIKULUA

Kontzesioaren xede den Zerbitzuen Eraikinean ezin izango da iragarki, propaganda edo publizitate komertzialik jarri, eta, inolaz ere, ez da okupatzen den Udal lursailaren kanpoaldean jarriko.

VIII. KONTZESIOAREN EPEA

17. ARTIKULUA

Kontzesioaren epea hiru (3) urtekoa izango da, 13. artikuluan zehaztuta dagoen harrera eta instalazioen funtzionamendua jasoko dituen akta izenpetzen den



egunetik kontaktzen hasita.

18. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileari Zerbitzuen Eraikina emango zaio zazpi (7) eguneko epean, harrera eta funtzionamendua jasoko dituen akta izenpetzen denetik.

IX. USTIATZE-KANONA

19. ARTIKULUA

Begarako Udalak ez dio emango inolako prestazio ekonomikorik adjudikazio-hartzaileari; eta kontratazioaren xede den zerbitzuaren operazio-arriskua emakida-hartzaileari soil-soilik eskualdatzen zaio.

X. ZERBITZUAK EMATEA

20. ARTIKULUA

Parkeko erabiltzaileak doan erabili ahal izango ditu komunak, eta horien mantentze-gastuak adjudikazio-hartzailearen gain joango dira.

XI. ERAIKINA USTIATZEKO BERMEAK

21. ARTIKULUA

Zerbitzua ematearen eta instalazioak erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalte edo istripuen erantzule bakarra kontzesio-hartzailea izango da Udalaren eta hirugarrenen aurrean.

22. ARTIKULUA

Zerbitzuen Eraikina ireki aurretik eta 15 laneguneko epean jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, kontzesio-hartzaileak Bergarako Udalean aurkeztu beharko ditu 8. artikuluan adierazitako aseguru-poliza kontratatu izana egiaztatzen duten agiriak.



23. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak Zerbitzuen Eraikinaren funtzionamendutik sor daitezkeen kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Nahitaez kontratatu behar dituen aseguru-polizek estaltzen ez dituzten kalteen erantzule zuzena izango da Bergarako Udalaren eta hirugarrenen aurrean. Aseguru-polizek edo beste aseguru batek behar beste ordaintzen ez dutenean ere, kontzesio-hartzaileak ardura zuzena izango du aipatutako pertsonen aurrean.

XII. FISKALIZAZIOA ETA ZIGORRAK

24. ARTIKULUA

Begarako Udalak kontzesio-hartzailearen kudeaketa fiskalizatuko du kontzesioaren xede eta garapenarekin zerikusia duten alderdi guztietan, eta egindako ikuskapenekin bat etorritik bidezkoak irizten dituen aginduak eta xedapenak eman ahal izango ditu.

25. ARTIKULUA

Begarako Udalak Zerbitzuen Eraikinaren kontserbazio eta ustiapenean antzemandako akatsen ondorioz bidezkoa den erantzukizuna eskatuko du, akats horiek kalte-ordainak eragiten dituztenetan.

XIII. KONTZESIOA BERTAN BEHERA UZTEA

26. ARTIKULUA

Sektore Publikoko Kontratuen 294. artikulua jasotzen dituen arrazoiez gain, kontzesioa amaitzeko arrazoiak ere izango dira honako hauek:

Kontzesioaren epea amaitzea.

Kontzesio-hartzaileak lehiaketaren oinarriak ez betetzea.

Hartzaileak bere aldetik kontzesioa bertan behera uztea edo hari uko egitea. Bertan behera utzi duela ulertuko da kontzesio-hartzaileak, bidezko arrazoirik gabe, Zerbitzuen Eraikina ustiatu behar dituen sasietan derrigorrez zerbitzua eman behar duen bi egun baino gehiago jarraian ez duenean ematen (8. artikulua), langileak kendu edo zerbitzuaren beharrianak zeharo betetzen ez dituelako.



Kontzesioa amaitzen denean, eta ez-betetze kasuetan izan ezean, kontzesio-hartzaileak hamabost (15) eguneko epea izango du Zerbitzuen Eraikina ustiatzeko ekarri dituen tresna guztiak eramateko, inbertsio moduan eraikinean egindako mantentze-, kontserbazio- eta hobekuntza-lanak izan ezik. Eraikina, beraz, gutxienez hasieran zituen hornidura, instalazio eta zerbitzuekin laga beharko du.

27. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak oinarri hauetan jasotzen diren betebeharrak betetzen ez baditu, Bergarako Udalak kontzesioa bertan behera uztea erabaki ahal izango du.

Ondorio horretarako bereziki larriak izango dira honako jarduera hauek:

Borondatez berandutzea eraikineko zerbitzua martxan jartzeko epean.

Hutsegite larriak instalazioen eta Zerbitzuen Eraikinaren kontserbatze-lanetan.

Akats edo gehiegikeria zerbitzua ematean.

Begarako Udalak oinarrietan adierazitako betebeharrei buruz egiten dituen oharrak behin eta berriz ez betetzea kontzesio-hartzaileak.

Kasu horietan Bergarako Udalak kontzesioa eteten badu, kontzesio-hartzaileak zerbitzua kudeatzeari utziko dio.

28. ARTIKULUA

Kontzesioa amaitu baino hiru hilabete lehenago, kontzesio-hartzaileak bere kontura egin beharko ditu –Begarako Udaleko teknikoekin ikuskapenarekin– Zerbitzuen Eraikinaren instalazio, zerbitzu eta eraikuntza guztiak baldintza hobezinetan entregatzeko beharrezkoak diren obra eta lanak. Lan hauek normaltasun osoz egin beharko dira eta ez dute eraikinak ematen dituen zerbitzuen ohiko funtzionamendua oztopatuko.

29. ARTIKULUA

Kontzesio-hartzaileak bermatuko du emakida gauzatzean sortutako dokumentazioa, publizitatea, hizkera, irudia edo materialak ez direla sexistak izango eta saihestu egingo dela emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudiak sustatuko direla.



Era berean, emakidadunak errespetatu egin beharko du pertsona orok tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza izateko duen eskubidea, edozein direla ere pertsona horien nazionalitatea, adingabeak edo adin nagusikoak diren, edo legezko bizilekua duten ala ez. Inor ezin izango da diskriminatu arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-joera edo -identitatea, genero-adierazpena, gaixotasuna edo osasun-egoera, egoera serologikoa eta/edo patologia eta nahasmenduak pairatzeko aurretiko joera genetikoa, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa, edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozial.

30.ARTIKULUA

Kontuan izanik emakidaren helburua, Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Bultzatzeko onartutako Planean jasotakoaren arabera, adjudikazio-hartzaileari honako puntuak betetzea eskatuko zaio:

Zerbitzua emango duten langileen euskara gaitasunari dagokionez:

- Jendaurrean lan egin behar duten pertsonak euskaraz jakin beharko dute. Eskatuko den maila hau izango da: B-2. mailaren ahozkoa.
- Jendaurrean lan egiteko proposatzen diren pertsonak euren euskara gaitasuna egiaztatu beharko dute beharrezko agiriak aurkeztuta edo, halakorik izan ezean, Euskara Zerbitzuak jarritako frogak eginda. Eta adjudikazioa gauzatu ondoren zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez:

- Ageriko errotulu, kartel eta informazioak euskaraz edo, behar balitz, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira. Ele bietan jartzekotan, euskarari lehentasuna emango zaio, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Bestalde, testuak hizkuntza aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeke, Euskara Zerbitzuaren laguntza eska daiteke.
- Ahozkoari dagokionez, lehen hitza euskaraz egingo da eta "ahobizi" jarrera bultzatuko da.
- Harreman administratiboak. Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontzesio-hartzailearen eta Bergarako Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira, bai ahoz eta bai idatziz. Eta gutxienez, udalak euskaraz bidalitako idatziak bideratzeko baliabideak izango ditu dagokion enpresak.

Adjudikazio honen ardura daraman udal zerbitzuak (Hirigintza Zerbitzuak) egingo du hizkuntza-betekizunen betetzearen jarraipena; horretarako modua eta baliabideak Euskara Zerbitzuarekin adostuta. Adjudikazio-hartzaileak jarraipen hori egitea erraztuko du.



Lizitzaile batek ere ez badu egiaztatzen jendurreko zerbitzua emango duten langileek eskatutako euskara-maila dutenik, adjudikazioa proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitzailearen alde egingo da eta bi urteko epea emango zaio euskara-maila egiaztatzeko. Epe hori igarotakoan ez badu maila egiaztatu, Udalak lizitazio berri bat deituko du. Horrenbestez, adjudikazio-hartzaile berriarekin emakida sinatutakoan, honako plegu honen bidez adjudikazioa lortu duen adjudikazio-hartzailearekin sinatutako kontratuaren indarraldia bukatu egingo da, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

DILIGENTZIA: *Jasota gera dadila Askagain edo Iturriberry parkean dagoen kantina edo zerbitzu-eraikinaren erabilera eta ustiaketa esleitzeko eta arautzeko Baldintza Tekniko hau 2026ko martxoaren 26ko dekretu baten bidez onartutakoa dela.*

Bergaran, 2026ko martxoaren 27an

IDAZKARIA



PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA EXPLOTACIÓN DE LA CANTINA O EDIFICIO DE SERVICIOS EN EL PARQUE ASKAGAIN O ITURRIBERRI, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE BERGARA

I. OBJETO DEL CONCURSO

ARTÍCULO 1.

El Excmo. Ayuntamiento de Bergara convoca un Concurso para adjudicar la concesión administrativa de explotación de un EDIFICIO DE SERVICIOS, situado en el Parque o Area de Esparcimiento del paraje de ASKAGAIN o ITURRIBERRI, que se asienta en terrenos pertenecientes al término municipal de Bergara.

La explotación de dicho edificio tiene por finalidad cubrir, en función de su destino, las necesidades que se demanden por los usuarios del Area de Esparcimiento o cantina en cuanto a servicios de bar y aseo.

II. CARACTERÍSTICAS DEL EDIFICIO

ARTÍCULO 2.

La construcción proyectada consiste en un edificio rectangular, que dispone del correspondiente porche con un total de 62,91 m² cubiertos.

La solución volumétrica realizada se trata de un edificio de 2 aguas, construido en madera maciza de pino radiata, de 70 cm de espesor, tratada contra insectos y hongos xilófagos por el método de doble vacío.

El espacio interior, está destinado a bar, almacenes y aseos; el bar, de forma rectangular, ocupa la parte central del edificio. Su suelo presenta un solado de tipo cerámico y cuenta con dos pequeños almacenes laterales, contiguos a la barra.

El edificio cuenta, asimismo, con dos espacios para aseos, situados en un lateral del edificio y tiene la entrada desde el interior y exterior del edificio.

La superficie exterior bajo cubierta o porche, con una superficie de 14,2 m², tiene un tratamiento superficial de tipo cerámico, igual que el resto de la instalación.

La cubierta es a dos aguas, con una pendiente del 30%, construida con vigas de carga de madera laminada encolada y viguetas pareadas ancladas en cabeza a vigas de carga, con entarimado de la cara superior con tarima de pino radiata, de 22 mm de espesor.



El bar consta de un mostrador de 4,03 m de largo x 0,50 m de ancho y 1,15 m de alto, constando de tapa maciza de pino y trasera acabada al exterior con friso de abeto barnizado.

El edificio consta de red de agua fría y caliente, red de desagüe de fecales desde la cocina y sanitarios hasta entronque de salida. El sistema eléctrico se ha resuelto mediante la colocación de un punto de luz en cada pieza y cuatro en el bar, con tres enchufes en la zona del bar.

III. CONDICIONES GENERALES

ARTÍCULO 3.

El Ayuntamiento de Bergara permitirá al concesionario la ocupación y apertura al público del referido edificio, dentro del plazo de QUINCE DÍAS a partir de la fecha del acta de recepción y funcionamiento que se detallará más adelante.

ARTÍCULO 4.

El edificio que se facilitará al concesionario se destinará por éste únicamente a los fines previstos en el artículo 1 y según las características del inmueble descritas en el artículo 2.

ARTÍCULO 5.

Si además de las superficies señaladas en el artículo 2, el concesionario estuviese interesado en la ocupación de espacios libres colindantes al edificio para la instalación de mesas y sillas, lo solicitará del Ayuntamiento de Bergara, haciendo constar la superficie a ocupar y el plazo de ocupación. El Ayuntamiento de Bergara resolverá sobre esta petición, señalando, en su caso, las condiciones de esta autorización.

ARTÍCULO 6.

Serán a cargo del concesionario todos los gastos referentes al consumo de energía eléctrica, así como los gastos de conservación del edificio y de todas sus instalaciones.

Se exceptúan en cuanto a mantenimiento general del edificio en buen estado, los desperfectos estructurales atribuidos a defectos constructivos o movimientos naturales del terrenos, asentamientos, etc.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Bergara correrá con los gastos del consumo de agua y del mantenimiento de las instalaciones de agua y saneamiento.



ARTÍCULO 7.

Todas las instalaciones propias del bar se realizarán por el Ayuntamiento de Bergara y a su costa exclusivamente. Las instalaciones comprenderán todos los medios precisos a este tipo de explotaciones, incluyendo el mobiliario adecuado.

Todos los demás gastos que se produzcan dentro o fuera del edificio o en cualquiera de sus instalaciones, será por cuenta del concesionario o terceros responsables ante él, pero en ningún caso por cuenta del Ayuntamiento de Bergara.

IV. OBLIGACIONES DEL CONCESIONARIO

ARTÍCULO 8.

Serán obligaciones del concesionario las siguientes:

Por lo que concierne al edificio, el mantenimiento de la potabilizadora de aguas potables en condiciones adecuadas, el arreglo de las instalaciones y la sustitución de los elementos higiénicos.

Asimismo quedará obligado al pago de los Seguros Sociales, de accidentes de trabajo y cuanto se derive durante la vigencia de la concesión sobre materia laboral, social y fiscal.

El adjudicatario de la concesión asume las responsabilidades correspondientes a las faltas que se cometan en la ejecución de los trabajos sus encargados o dependientes y se obliga a abonar todos los gastos, pensiones o indemnizaciones en los daños a terceras personas, producidos con ocasión o por consecuencia de los trabajos objeto de este Concurso.

El Concesionario contratará con una Compañía de Seguros una póliza de responsabilidad civil por importe de 150.000 euros que cubra el valor de todo el edificio e instalaciones, así como de la actividad del concesionario y cuya fecha de inicio coincida con la de la explotación de la concesión.

En caso de siniestro, extravío, rotura de las instalaciones, repondrá las mismas.

El concesionario vendrá obligado a abrir al público la cantina o edificio de servicios todos los domingos y festivos del año. Asimismo, durante los meses que transcurren de mayo a setiembre, ambos inclusive, esta obligatoriedad se hará extensiva a los sábados. Únicamente por causa debidamente justificada podrá eximirse la citada obligación.

El concesionario estará obligado a mantener abierto el establecimiento público 4 horas entre las 10 y 19 horas.



En cualquier caso, el concesionario comunicará al Ayuntamiento de Bergara el horario de verano e invierno, que deberá contar con el visto bueno del mismo. Estará expuesto en la parte exterior de la cantina para su conocimiento general.

V. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE BERGARA

ARTÍCULO 9.

El Ayuntamiento de Bergara se compromete a que se efectúe por el organismo adecuado el servicio de recogida de basuras en horas compatibles en el funcionamiento del Area de Esparcimiento.

En cualquier caso, el concesionario estará obligado a depositar la basura debidamente separada, de acuerdo con el sistema de recogida de basura que establezca el Ayuntamiento de Bergara.

ARTÍCULO 10.

Será por cuenta del concesionario la obtención de cuantas licencias de todo tipo fueren precisas para la puesta en marcha de la actividad a desarrollar en el edificio objeto de esta concesión. Asimismo, correrá con los gastos que ocasionen las mencionadas licencias.

ARTÍCULO 11.

Si no se procede a la apertura del edificio en el plazo detallado en el artículo 10, el concesionario abonará una penalidad diaria de 50 euros; y así sucesivamente hasta alcanzar los 1.000 euros, en cuyo momento se podrá por el Ayuntamiento de Bergara declarar caducada la concesión.

Las sanciones señaladas no serán de aplicación si la demora fuese debida a causa no imputable al concesionario.

ARTÍCULO 12.

En el plazo de 8 días desde la formalización de la concesión, el concesionario y el Ayuntamiento de Bergara formalizarán la correspondiente acta de recepción y funcionamiento de las instalaciones.

VII. CONSERVACIÓN Y EXPLOTACIÓN



ARTÍCULO 13.

El concesionario deberá mantener en buen estado de conservación todo el Edificio de Servicios y las instalaciones interiores del edificio.

De acuerdo con el artículo 6, el Ayuntamiento de Bergara se responsabilizará del mantenimiento de las instalaciones de agua y saneamiento; asimismo, en el mantenimiento del pozo séptico.

ARTÍCULO 14.

El concesionario vigilará minuciosamente el funcionamiento de todas las instalaciones que comprende el Edificio de Servicios y revisará los mecanismos de las mismas para garantizar un buen servicio a los usuarios. Atenderá a este respecto las sugerencias que se le hagan por los técnicos del Ayuntamiento de Bergara. Asimismo el concesionario estará obligado a reparar y sufragar los gastos originados por cualquier deficiencia o avería que se produzcan en las instalaciones.

Deberá, asimismo, efectuar las renovaciones y mejoras en las explotaciones que sean precisas, para que el Edificio de Servicios reúna condiciones óptimas en su explotación.

Toda modificación o mejora que pretenda llevar a cabo el concesionario en el Edificio de Servicios deberá ser comunicada al Ayuntamiento de Bergara, no pudiendo realizar las mismas mientras no cuente con la preceptiva autorización.

ARTÍCULO 15.

Queda prohibida cualquier clase de cesión, traspaso o arriendo del Edificio de Servicios, siendo responsable directo de su explotación el concesionario del mismo.

ARTÍCULO 16.

No se permitirá ninguna clase de anuncios, propaganda o publicidad comercial en el Edificio de Servicios objeto de concesión ni, en ningún caso, en el exterior de la parcela municipal que sea ocupada.

VIII. PLAZO DE CONCESIÓN

ARTÍCULO 17.

El plazo de concesión será de tres (3) años, a partir de la fecha de formalización del acta de recepción y funcionamiento establecido en el artículo 13.



ARTÍCULO 18.

La entrega al concesionario del Edificio de Servicios se hará en el plazo de siete (7) días de la fecha del acta de recepción y funcionamiento.

IX. CANON DE EXPLOTACIÓN

ARTÍCULO 19.

La empresa adjudicataria no recibirá prestación económica alguna del Ayuntamiento, siendo el riesgo operacional del servicio objeto de la concesión transferido únicamente a la concesionaria.

X. PRESTACIÓN DE SERVICIOS

ARTÍCULO 20.

Serán gratuitos para el usuario del Parque la utilización de los servicios, cuyos gastos de mantenimiento correrán a cargo del adjudicatario.

XI . GARANTIAS PARA LA EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO

ARTÍCULO 21.

El concesionario será el único responsable tanto frente al Ayuntamiento como frente a terceros, de los daños o accidentes que se produzcan en la prestación del servicio y en el uso de las instalaciones.

ARTÍCULO 22.

El concesionario, antes de la apertura del Edificio de Servicios, y dentro del plazo de 15 días hábiles contados desde el siguiente a la notificación presentará al Ayuntamiento de Bergara los documentos justificativos de haber suscrito la póliza de seguro aludida en el artículo 8.

ARTÍCULO 23.

El concesionario quedará obligado a resarcir los daños e indemnizar los perjuicios que pudieran derivarse del funcionamiento del Edificio de Servicios.



Responderá de manera directa ante el Ayuntamiento de Bergara y ante terceras personas, de todos los daños que no fueran cubiertos por las pólizas de seguro que obligatoriamente ha de suscribir. También responderá de manera directa ante las aludidas personas en los casos de insuficiencia de las pólizas de seguro o cualquier otro.

XII. FISCALIZACIÓN Y SANCIONES

ARTÍCULO 24.

El Ayuntamiento de Bergara fiscalizará la gestión del concesionario en todos los aspectos relacionados con el objeto y desarrollo de la concesión y podrá dictar las órdenes y disposiciones que, en virtud de las inspecciones realizadas, resulten procedentes.

ARTÍCULO 25.

El Ayuntamiento de Bergara exigirá las responsabilidades a que haya lugar por las faltas que se aprecien relacionadas con la conservación y explotación del Edificio de Servicios y que produzcan al mismo daños y perjuicios.

XIII. RESOLUCIÓN DE LA CONCESIÓN

ARTÍCULO 26.

La concesión terminará, además de por las causas establecidas en el artículo 294 de la Ley de Contratos del Sector Público, por alguno de los siguientes motivos:

Por finalización del plazo por el que se otorgó:

Por incumplimiento de las bases del concurso por parte del concesionario.

Por abandono o renuncia del concesionario. Se entenderá que existe abandono cuando el concesionario, sin causa justificada, deje de prestar servicio durante más de dos días seguidos de obligado cumplimiento (artículo 8), durante las épocas de explotación del edificio de Servicios, mediante la retirada de su personal o desatención absoluta del servicio.

A la terminación de la concesión, y salvo en los supuestos de incumplimiento, el concesionario tendrá un plazo de quince (15) días para retirar los enseres por él aportadas para la explotación del Edificio de Servicios, dejando a salvo las inversiones realizadas para su mantenimiento, conservación y mejoras llevadas a



cabo en el inmueble que deberá quedar, como mínimo, con las dotaciones, instalaciones y servicios con que cuenta en su momento.

ARTÍCULO 27.

El incumplimiento de las obligaciones que se imponen al concesionario en las presentes bases podrá determinar la declaración por parte del Ayuntamiento de Bergara de resuelta la concesión.

Se consideran, a tal efecto, especialmente graves las siguientes actuaciones:

Demora voluntaria a la puesta en servicio del Edificio.

Graves descuidos en la conservación de las instalaciones y del Edificio de Servicios.

Deficiencia o abuso en la prestación del servicio.

Desobediencia reiterada del concesionario a las observaciones del Ayuntamiento de Bergara, en relación con cualquiera de las obligaciones enunciadas en las bases.

Declarada en tales casos por el Ayuntamiento de Bergara la supresión de la concesión, cesará la gestión del concesionario.

ARTÍCULO 28.

El concesionario deberá realizar a su costa, tres meses antes de la fecha de finalización de la concesión, bajo la supervisión de técnicos del Ayuntamiento de Bergara, las obras y trabajos que exija la perfecta entrega de todas las instalaciones, servicios y construcciones del Edificio de Servicios, en condiciones de absoluta normalidad para la prestación de los servicios a que está destinado.

ARTÍCULO 29.

La empresa contratista garantizará que en la ejecución del contrato la documentación, publicidad, imagen o materiales se realice un uso no sexista del lenguaje, y se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se fomente una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

Asimismo, la concesionaria deberá respetar el derecho de toda persona a la igualdad de trato y no discriminación con independencia de su nacionalidad, de si son menores o mayores de edad o de si disfrutan o no de residencia legal. Nadie podrá ser discriminado por razón de nacimiento, origen racial o étnico, sexo, religión, convicción u opinión, edad, discapacidad, orientación o identidad sexual, expresión de género, enfermedad o



condición de salud, estado serológico y/o predisposición genética a sufrir patologías y trastornos, lengua, situación socioeconómica, o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

ARTÍCULO 30.

Teniendo en cuenta que el objeto de la concesión, de conformidad con lo establecido en el plan aprobado por el Ayuntamiento de Bergara para fomentar el uso del euskera, a la adjudicataria se le exigirá el cumplimiento de los siguientes puntos:

Respecto a la competencia en euskera por parte del personal que vaya a prestar el servicio:

- Las personas que vayan a trabajar de cara al público deberán saber euskera. El nivel exigido será la parte oral del nivel B-2.
- Las personas propuestas para trabajar de cara al público deberán acreditar su competencia lingüística en euskera mediante la presentación de los documentos precisos o, en caso contrario, sometiéndose a las pruebas preparadas por el Servicio de Euskera. Así mismo, en caso de que tras realizarse la adjudicación se incorporen nuevas personas para la prestación del servicio, estas también deberán acreditar su competencia lingüística en euskera.

Respecto al uso de la lengua:

- Los rótulos, carteles e informaciones de cara al público se pondrán en euskera o, de ser preciso, en bilingüe (euskera y castellano). En este último caso, se dará preferencia al euskera, tanto por ubicación (el texto en euskera encima del de castellano), como por tamaño. Por otro lado, a fin de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera, se puede solicitar la colaboración del Servicio de Euskera.
- A nivel oral, la primera palabra se dirá siempre en euskera y se fomentará una actitud proactiva de "ahobizi".
- Relaciones administrativas. En el ayuntamiento la lengua de trabajo habitual es el euskera, de modo que las relaciones administrativas entre la empresa contratada y el Ayuntamiento de Bergara se realizarán en euskera, tanto en su vertiente oral como escrita. Así pues, como mínimo, la empresa correspondiente dispondrá de los medios necesarios para canalizar los escritos remitidos en euskera por el ayuntamiento.

El seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos será realizado por el servicio municipal responsable de la adjudicación (Servicio de Urbanismo), de la forma y con los medios convenidos con el Servicio de Euskera, debiendo la adjudicataria facilitar dicho seguimiento.



En caso de que ninguna de las licitadoras acredite que el personal destinado a la prestación del servicio de cara al público tenga el conocimiento de euskera exigido, la adjudicación se realizará a favor de la licitadora que haya presentado la proposición más ventajosa concediéndole un plazo de dos años para acreditar dicho nivel de euskera. Si transcurrido dicho plazo no se ha acreditado el nivel, el ayuntamiento convocará una nueva licitación, de modo que, cuando se formalice la concesión con la nueva adjudicataria, finalizará la vigencia de la concesión suscrita con la adjudicataria a la que se le hubo realizado la adjudicación conforme a este pliego, sin derecho a percibir indemnización alguna.

DILIGENCIA: Para hacer constar que este pliego de cláusulas técnicas para la adjudicación de la concesión para el uso y explotación de la cantina o edificio de servicios sito en el parque Askagain o Iturriberrí ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 26 de marzo de 2026.

Begara, a 27 de marzo de 2026

EL SECRETARIO